

Jakingarriak aldizkariak familia eta eskola aztertu ditu azken alean

2007/03/12

HUHEZI fakultateko Dokumentazio Zentroak **Jakingarriak** aldizkariaren azken alea kaleratu du, ale bikoitza eta mardula, ale bakarrak biltzen baititu 60 eta 61. zenbakiak. Aurrekoak bezala, ale hau EAEko ikastetxe guztietan banatuko da, eta Nafarroako eta Iparraldeko ikastoletan. 1.200 ale guztira.

Familia eta eskola

Ale honen gai nagusia da **Familia eta Eskola**; alea hamar artikuluk osatzen dute, eta **Nerea Alzola** irakasleak koordinatzen du. Koordinatzaileak berak sarreran dioenez, monografiko hau lantzeko orduan saiatu dira ikuspegi zabala izaten, eta horregatik gonbidatu dituzte hainbat talde, hiritar eta espezialista. "Ez da nahikoa kontuan izatea soilik eremu bi hauek: **ikuspegi ekologikoa** behar dugu, eta, nahiz eta eskolaren eta familiaren arteko lotura eta harreman sendoak behar, **sare sozialak** sortu, elikatu eta garatu behar ditugu, haurrak izan dezan humus aberatsa pertsona aberatsa eta herritarra izateko".

Ikuspegi horrek bultzatuta, espezialistek aztertu dute familiaren eta eskolaren arteko harremana arlo askotatik abiatuta. Horrekin batera, monografikoak pare bat kasu praktiko dakartza: **Legarda Herri Eskola** eta **Granadako Luna Udal Haur Eskola**.

Betiko moduan, Jakingarriak aldizkariaren ale honek ere **lau liburu berri** aztertzen ditu, **hainbat artikulua aipagarri** dakar, eta zenbait **aipu** jasotzen du, gehienak irakaskuntzaren ingurukoak.



Jakingarriak

FAMILIA
ETA
ESKOLA